


Euskal AEko BPGk urte arteko %3,2ko hazkundera izan zuen 2016ko bigarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, %0,8ko hazkundera

2016ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEko BPG %3,2 gehitu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Eustaten datuen arabera. Aurreko hiruhilekoaren aldean, %0,8ko hazkundera. Uztailaren 27an emandako aurrerapen-datuen aldean, urte artekoak hobera egin du bi hamarrenez eta hiruhileko artekoak batez. 2016ko bigarren seihiileko BPGren hobera egite hau zerbitzuen eta eraikuntzaren jardura-adierazleen bilakaerak ekarri du; irailean kaleratu dira adierazleok.

Euskal ekonomiaren hazkundera 2016ko bigarren hiruhilekoan Espainiakoaren horixe izan da hiruhileko artean eta urte artean; urte artean, Euroeremua-19koaren (%+1,6) aldean, halako bi.

BPGren urte arteko aldakuntza-tasa. (%)
Urtaroen eta jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eskaintzaren ikuspegitik, BPGren urte arteko hazkundera jarduera-sektore guztiei zor zaie. 2016ko lehen hiruhilekoaren aldean Industriaren eta Lehen sektorearen hazkunde-erritmoa apaldu egin da. Eraikuntzak hobera hiruhileko honetan, aurrekoan baino nabarmen gehiago. Zerbitzuetan dugu urte arteko hazkunde-tasa handiena, aurreko hiruhilekoa baino ere handiagoa. Azpi sektore guztietan dugu hazkundera, handiena Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioan.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2014	2015	2015			2016	
			II	III	IV	I	II
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, ARRANTZA	-19,8	13,4	5,8	13,1	24,3	11,6	2,8
INDUSTRIA ETA ENERGIA	2,0	3,9	4,4	4,5	4,9	4,8	2,4
Manufaktura-industria	2,4	4,7	5,3	5,4	5,7	4,7	2,6
ERAIKUNTZA	-1,7	0,5	0,6	0,2	-0,2	-0,3	2,7
ZERBITZUAK	1,7	2,9	2,8	3,1	2,8	3,0	3,4
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	1,9	4,5	4,7	4,9	3,8	3,1	3,9
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	2,6	2,5	2,6	2,4	2,2	2,2	2,4
Gainerako zerbitzuak	1,0	2,0	1,8	2,3	2,4	3,4	3,6
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	1,4	3,1	3,1	3,3	3,2	3,3	3,1
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	3,8	1,1	0,8	1,2	2,0	3,2	3,2
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	1,6	2,9	2,9	3,1	3,1	3,3	3,2

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak
Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Industria, hiruhileko honetan, %2,4 gehitu da urte artean. Urte arteko honek %0,7ko hazkundera ekarri du aurreko hiruhilekoaren aldean.

Eraikuntza %0,3 murriztu zen urte artean 2016ko lehen hiruhilekoan; %2,7ko gehikuntza bigarren. Urte arteko honek %0,1eko hazkundera ekarri du aurreko hiruhilekoaren aldean.

Zerbitzuetan urte arteko %3,4ko eta hiruhileko arteko %1,0ko hazkundeak.

Zerbitzuen urte arteko %3,4ko hazkundera azpisektore guztiei zor zaie. **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioan** (%3,9), eta **Gainerako zerbitzuetan** (%3,6 -besteren artean, jarduera profesionalak, finantzak eta aseguruak) adarretan ditugu hazkunderik handienak. Bi adarretan bigarren hiruhileko urte artekoa lehenengoaren gainera da. **Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** %2,4 gehitu dira urte artean, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago.

Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuekin lotutakoetan dugu azpisektore arteko hiruhileko arteko hazkunderik handiena, %1,6; positiboan, azpisektore guztiak. **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** %0,8 gehitu da eta %0,9 **Gainerako zerbitzuak**.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2015			2016	
	II	III	IV	I	II
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	1,1	3,6	-5,5	12,8	-6,9
INDUSTRIA ETA ENERGIA	3,1	0,9	0,7	0,1	0,7
Manufaktura-industria	1,8	1,0	0,3	1,5	-0,2
ERAIKUNTZA	-2,8	0,6	4,6	-2,5	0,1
ZERBITZUAK	0,6	0,8	0,3	1,3	1,0
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-0,1	0,7	1,6	0,7	0,8
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	1,3	0,3	-1,9	2,4	1,6
Gainerako zerbitzuak	0,7	1,0	0,5	1,1	0,9
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	1,0	0,8	0,6	0,9	0,8
PRODUKTUEN GAINENKOTZAK	1,0	0,9	0,9	0,4	1,0
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	1,0	0,8	0,6	0,8	0,8

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Urte artean %3,3ko hazkundera dugu **Barne Eskarian**; aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren hobeto. Positibotasun hau bi osagarrietan dugu, Azken Kontsumoko Gastuan eta Kapital Eraketa Gordinean. Inportazioak gehixeago gehitu dira esportazioak baino hiruhilekoan.

Familia-etxeetako Azken kontsumoaren Gastuak (Kontsumo pribatuak) azkartu egin du hazkunde-erritmoa urte artean. %3,4ko hazkundera hiruhileko honetan; aurrekoan baino hamarren bat gehiago; hiruhileko artean %1,8.

Kontsumo publikoa (Herri Administrazioen Azken Kontsumoko Gastua) %2,7 gehitu da urte artean (hiru hamarren gehiago aurreko hiruhilekoan baino); %3,7 hiruhileko artean.

Azken Kontsumoko Gastua (Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastua eta Familia-etxeetakoa) %3,2 gehitu da. Aurreko hiruhilekoaren aldean %0,7ko hazkundera.

3. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2014	2015	2015			2016	
			II	III	IV	I	II
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	1,9	2,8	2,9	3,2	2,7	3,1	3,2
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	2,2	3,1	3,3	3,1	2,9	3,3	3,4
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	0,7	1,8	1,3	3,4	2,0	2,4	2,7
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	-0,5	2,8	2,7	2,8	2,8	3,4	3,7
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	3,3	6,5	5,8	7,4	8,8	10,7	7,0
Gainerako kapital-eraketa gordina	-2,0	1,2	1,3	0,7	0,3	0,2	2,2
BARNE-ESKARIA	1,4	2,8	2,8	3,1	2,7	3,1	3,3
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	5,8	0,6	1,5	-2,9	2,3	4,2	3,0
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	5,3	0,6	1,3	-2,8	1,6	3,9	3,2
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	1,6	2,9	2,9	3,1	3,1	3,3	3,2

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Kapital Eraketa Gordina (Inbertsioa) %3,7 gehitu da urte artean, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gehiago. Hiruhileko arteko hazkundera, %1,1. Inbertsioaren bi osagarriek hobera. Ekipo-ondasunetan eginiko inbertsioa %7,0 gehitu da urte artean eta %0,6 hiruhilekoan. Kapital Eraketa Gordinaren gainerakoak -eraikuntzarekin lotuagoak- %2,2 urte artean, %1,3 hiruhileko artean.

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2015			2016	
	II	III	IV	I	II
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	0,5	0,6	0,1	1,8	0,7
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	1,7	0,6	0,4	0,5	1,8
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	-3,9	0,7	-1,1	7,0	-3,7
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	0,8	1,0	1,7	-0,2	1,1
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	4,1	3,9	-0,1	2,4	0,6
Gainerako kapital-eraketa gordina	-0,6	-0,3	2,6	-1,4	1,3
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	7,2	-0,7	-0,9	-1,2	5,9
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	6,3	-0,8	-1,1	-0,3	5,5
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	1,0	0,8	0,6	0,8	0,8

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Enplegua (lanpostuak **Dedikazio Osoko Baliokidetzan** neurtuta) %1,8 gehitu da urte artean. 2016ko lehen hiruhilekoaren aldean, urte arteko honek %0,6ko hazkundera dakar.

Enplegua hazten jarduera sektore guztietan Eraikuntzan (%-0,1) izan ezik. Zerbitzuetan %2,1 hazi da enplegua urte artean. Lehen sektorean %1,0. Urte artean eta hirugarren hiruhilekoz jarraian hazkundera Industrian, %1,4 ia.

Hiruhileko artean lau sektore handietatik hiru positiboan. Lehen sektorean %7,0; Industrian %0,4; Zerbitzuetan %0,6. Eraikuntzako enplegua aurreko hiruhilekoan bezalaxe (%0,0).

Urte artean, **BPG** %3,2 gehitu da Araban eta Bizkaian; Gipuzkoan %3,0. Hiruhileko artean, Araban eta Gipuzkoan %0,8; Bizkaian %0,9.

Ohar metodologikoa: Eustatek Hiruhileko Kontuetara Euskal AEko Kontu Ekonomikoetako 2014ko behin betiko datuak eta 2015eko aurrerapen datuak ekarri ditu; hiruhilekoetako serieak berriz zenbatetsi behar izan dira.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62
Euskal AEko Hiruhileroko kontuen gainerako prentsa-ohar gehiago (HKE)
Euskal AEko hiruhileroko kontuen gainerako datu-bankua (HKE)